

PLENTZIA. Izena emoteko epea gaur zabalduko da; 7an Baqueirakoa



EGUNKARIA

Kultur Etxeak martian elurretara joateko txangoak antolatu ditu herriko gazteentzat.

Adin guztietarako txangoak antolatu dauz Goñi Portalek

ARCO azokea bisitetako, Urkiolara eta Baqueirara joateko izango dira

Veronica Muñoz |

Adin guztietarako urteerak antolatu dauz Goñi Portal Kultur Etxeak, estreinau barri dogun urte honen hasierarako. Haste-ko, Madrilan egiten dan ARCO, arte garaikidearen ganeko azokara joateko bidaia prestatu dabe, helduei zuzenduta. Zezeilaren 14tik 16ra egingo dabe, eta prezioa 139 eurokoa da, 125 euro ikasleentzat.

Horren barruan bidaia sartzzen da, luxuzko autobusean ganera, baita 15ean eta 16an azokara joateko autobusa, ostata eta gosaria lau izarretako hotel baten, aseguru eta ARCO azokea bisitetako sarrera bi egunetarako be. Izena emoteko epea gaur zabaldu

dabe, eta urtarrilaren 22an amaituko da. Informazio gehiago gura daben guztiek ondorengo telefono zenbakira jo leikie: 94 677 55 41.

Helduak, halandabe, ez dira Kultur Etxeagaz bidaia egiteko aukera izango daben bakarrak, Izan be, umeentzat be beste urteerea antolatu dabe, oraingoan urtarrilaren 26rako, eta Urkiolara. 5 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Toki Alai interpretazio zentroa bisitetako egingo dabe txangoa eta, elurra egon ezkeroplastikoakaz olgetako aukera parebakoa be egongo da. Astillerosetik urtengo dabe, goizeko 9:30ean, eta arrastiko 19:30erako bueltan egongo dira, leku berean. Izena emoteko

ko epea gaur hasi eta urtarrilaren 20a arte egongo da zabalik, eta prezioa 6 eurokoa da.

Amaitzeko, Kultur Etxeko arduradunek herriko gazteengan be pentsau dabe, eta eurentzat beren beregi eskiatzera joateko txango antolatu dabe. Martian egingo dabe, 2tik 7ra, Baqueirara, inauterietako astean hain zuzen be, oporrak aprobetxetan.

Kultur Etxeagaz eskiatzera joateko prezioa 352 eurokoa da. Bidaiaz ganera, egonaldia, gosaria eta afaria, eskiatzeko txartela eta aseguru be sartuta dagoz. Gazteakaz, ganera, begirale bi egongo dira beti. Izena emoteko epea datorren urtarrilaren 7an zabalduko dabe, eta 20a arte eukiko dabe inskripzioa beteteko aukerea.

LEIOA. Kandelazubieta kiroldegian emongo dabe ikuskizuna, gaurtik 6a arte

Swamp Circus Theatre taldeagaz zirkuaren ikuskizunaz gozetako aukera aparta egongo da

V.M. |

Erresuma Batuko Swamp Circus Theatre taldeak zirkuaren atzetik izkututzen dan mundu miresgarria ekarriko dau Leioara, gaur hasi eta urtarrilaren 6a arte. Egunero saio bi izango dira, arrastiko 16:30ean eta iluntzeko 20:00etan, gaur izan ezik. Izan be, gaurko saio baka-

rra eratu dabe, iluntzeko 20:00etarako. Horrez ganera, goizeko, 12:00etan, gaztetxoen-tzako tailerrak be egingo dabez.

Musikea, malabareak, antzerkia, pailazoak eta beste hainbat arlo lantzen dabez Swamp Circus Theatre taldeko lagunak. Ikuskizunera joateko sarreren prezioa 5 eurokoa da, 11 urte arteko umeentzat eta

erretiraentzat, eta 10 eurokoa, helduentzat. Horrez ganera, txartel bereziak be ipini dabez salgai, 15 euroan, familientzat.

Autobus berezia egongo da egunotan, doan, Kandelazubieta joateko. Txorierrri, Lamiako, Pinueta, Artatza, San Bartolome, Artatzagane eta Sarriena-ko geltokietatik igaroko da. Informetako: 94 480 46 60.

ERANDIO. Ekitaldi guztiak doan izango dira

Gaur, bihar eta etzi izango da Astrabuduako txikienen txandea, Gautxoriakaz

V.M. |

Erandioko umeek ederto igaroteko aukerea eukiko dabe gaur, bihar eta etzi, Astrabuduako Josu Murueta Kultur Aretoan, Gautxoriak taldeak eurentzat beren beregi prestatu dauzan ekitaldiei esker, joan dan abenduan Erandioko Alzaga auzoan egin eban moduan.

Gaur, hasteko, *Non dago maletea* izeneko beharra antzeztuko dabe Hiruki pailazoen Josu Muruetan. Ikuski-

zuna arrastiko 18:00etan hasiko da. Biharko, barriz, txotxongiloen antzezlana prestatu dabe, Behi Bi's taldeagaz, 12:30erako. Eta arrastian, zirkoa be egongo da, oraingoan Shanbu taldearen eskutik, eta 19:00etan.

Umeentzako eskaintzea amaitzeko, etziko *Printze txikia* antzezlana eta magia ikuskizuna Eriz aztiagaz gertau dabez, 12:30erako eta arrastiko 19:00etarako hurrenez hurren. Ekitaldi guztietarako sarrerea doan da.

GETXO. Joaquin Kremel da protagonistea

'Un marido de ida y vuelta' antzezlana Getxo antzokira ekarriko dabe, hilaren 10ean

V.M. |

Joaquin Kremel aktore ezagunak Algortako Getxo antzokian ikusteko aukerea eukiko dau publikoak, urtarrilaren 10ean, *Un marido de ida y vuelta* antzezlanean.

Behar horretan, neska gazte batez ezkondu dagoen Pepe izeneko gizon baten istorio dibertigarria kontetan dabe, eta umorezko antzerki tradizionalan oinarrituta dago. Joaquin Kre-

mel, hain zuzen be, Pepe da, eta Julia Torres emaztea.

Un marido de ida y vuelta Enrique Jardial Poncelak idatzirikoa da. Algortako aretoan, saio bitan antzeztuko dabe: arrastiko 19:30ean lehena, eta gaueko 22:30ean bigarrena.

Sarrerak gaur bertan ipini-ko dabez salgai, Getxoko Kultur Etxean. 11 eurogaitik eskuratu ahal izango dira (8,50 euro gazte txartelagaz eta erretiraentzat).

AGENDEA

GETXO

Getxolandia: Urtarrilaren 5a arte egongo da zabalik Getxoko Gabonetako umeentzako parkea, Areetako metro geltokiko plazan. Sarrereak 2,50 euro balio dau umeentzat, eta 3 euro gaztetxoentzat.

Erakusketea: Gaur, bihar eta etzi Aspremar alkatereko kideek eskuz eginiko larrauzko eta mimbrezko beharrak ikusi eta erosi ahal izango dira, Erromoko Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

Erakusketea: Carlos Canovas eta Ramon Esparzaren argazkiak. Algortako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, urtarrilaren 11 arte.

PLENTZIA

Tailer barriak: Josten eta tinbalak jotzen ikasteko tailerrak, eta umeentzako antzerki tailerra be antolatu dauz Goñi Portal Kultur Etxeak. Klaseak urtarrilean hasiko dira, eta martian amaitu. Josten ikasteko tailerra goizean izango da, eta beste biak, barriz, arrastian. Izena

emoteko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako: 94 677 55 41.

LEIOA

Sariak banatzeko ekitaldia: *Fauna mehatxupean*, orain egun gitxi arte Artatza jauregian zabaldu eta egon dan erakusketearen inguruan antolatu dabezan marrazki eta idazlanen lehiaketen sariak bananduko dabez gaur, iluntzeko 20:00etatik aurrera, Kandelazubieta kiroldegian.

BERANGO

Erakusketea: *Pintura pastela* izenburupean, urtarrilaren 5a arte Jose Miguel Serrano margolariaren beharrak ikusi ahal izango dira, Berangoko Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

DERIO

Berbaldia: Nicaraguako herritarrek laguntzeko martxan dagozan hainbat proiekturen ganean berba egingo dau Iñaki Villares kooperanteak, Derioko Kultur Etxean. Berbaldia arrastiko 19:30ean hasiko da, eta sarrerea doan izango da.